

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea. - Pamplona. - Julio-Agosto 1969. — Uztaila-Agorrilla. Iruña. 41-42 gn. zenbakia.

DIRECTOR: J. E. URANGA

## BI GIZON ILARGIAN



Lehenbiziko aldiz bi gizonak ilargia ikutu dute. Eta ez ikutu bakarrik: bi ordu terdiz ilargiko lurraren gainean ibili dira beren anak, ilargiko arriak bildu dituzte eta beren anketakotatik huts berri bat garbitu. *Armstrong* da burnizko mailak lehenbizikorik jeitxi dituen gizonaren izena, eta *Aldrin* bere laguna. Garai bateko gizonak ez lezakete sinets. Nork daki han zer gertatzen den, esaten zuten aiek. Guk geure begiz ikusi dugu. Moxkorak bezala mugitzen ziren, globo arinak iduri zuten lurra ezin ikutuz. Lau egun eta zazpi orduz egin dute joanera; beste orrenbeste berandutuko dute etortzen. Bi gizonak beren eskuz ilargia arrapatu dute. Maitale xamurren ametsa bete da.

Asiera. Ilargiaren ondotik, Marte; eta gero... Jainkoak daki zer. Amets-bide berri batean sartu da gizadia; izartegia zulatzen asi da eta hortxe du, begien aurrean, muga gabeko zeru sapaia. Hori bai itsaso aundia! Hango bakardadea!

Uztailaren 16-an goratu ziren. Andra Mary Karmengoa seinale. Ogeitalau urte aurretik, 1945-eko uztailaren 16-an ain zuzen, lehenbiziko aldiz atomikak su-garrezko mendiak jaso zituen lu-

rrean. Ordu arteko aurreramenduak atzean uzten zituen honek. Aro berrian sartu zen mundua. Aurretik ezin asma ahaleko indarren jabe ginen gizonak. Gutxi iraundu dio atomikari bere itzal aundiak. Aundiago den gertakizun batek gaina hartu dio; izar bidetako gizaldian gera orai. Asiera emana da.

Gizatasunean ain aurrera ba gina! Bildurra ematen du buruz ain ondo dijoan gizonaren jokabideak bihotzez ain gutxi aurreratzen duela ikusteak. Izar inguruko muga aundiak ez dituzte gure arteko asiak arindu. Mundu txiki hontako istilluak latzak dira. Zuzendari batek ezin du bere etxetik atera, besteari gaitzitu gabe. Nixonen Errumaniako itzuliak, Errusiako itsas untiak Kuba aldera bota ditu. Ilargira bi gizon eraman dituen tresnari itzal egiteko or zebillen Errusoen beste tresna bat, zertako zen iñork etzekiela. Txinako egunkariak ez dute ilargira heltzearen berri eman. Zittelkeriak.

Israel ta Biafra; gerla ta gosea. Ego-ameriketako utzikeria eta bazartuak diren beltzen lotsa. Ba da gizonen adiskidantzan aurreratzeko beste bide luze bat.

Egokiak ilargitik esan dizkiguten hitzak: "Nornahi izanik eta nunnahi zaudetela barnez auzmartu azken ordu auetako gertakizunak, eta bakoitzak bere moduan eskerrak eman". Jainkoaren beso aundiak zuzentzen ditu gizonen urrats guziak.

"Gaixo ilargiari otoitz egin behar dakio", entzun nion nik eskualdun xahar bati. Ba zuela gizon bat bere ota-soinakin lurretik eremana... Gaur ilargia, gizona gainean belaunikatu eta Egipteari eskerrak emateko aldare gertatu zaigu. Zorioneak izarren gainetik denen iturria ikusten duten begiak.

SAGI




## Herritako festak

Berriz ere uda eta herritako festak. Ni haurra nintzanetik ez dira aldatu zorbait gauza. Batean egiten dena egiten da besteetan: ardoa eta ator aundiak gerrian lotuta; azkeneko kanta —orai Eurodoñuak—, eta ikasi ez duten dantza berria. Nexkato bakoitzak, festetako egina duen soinekoa eta, hori bai, belaun gainak agerian. Gero, bizardun latzen bat edo beste... eta ezin lorik egina. Herritako festak.

«Programa» beste alde da. Sekretario jaunek egiten dute gehienetan. Aurreko urtekoa bezalatsu izaten da; eta hura, bere aurrekoa bezala. «Programan» esaten diren gauzak, batzuk betetzen dira (diana, meza, plaza-koko dantza...); eta beste batzuk, ez. Pilotariak, biñepein, gutxitan gertatzen dira han esandakoak. Alkate jaunaren hitzak han dira lehenbiziko horritan. Herri guziak ba daki ez dela bere baratzeko aza; baño festetan dena barkatua da.

Hau da urtero ikusten oitirik gaudena. Horrexegatik, aurtengo sanjuanetan euskal herri bateko programa-azala ikusita harritu egin nintzan. Neska beltzaran, mardul, gona motza zekarren dantzan. Kitarra aundi bat, eta bizardun zakarra bere ondoan. Nungo euro-massiel ote zuten hura galdetzen zuen jendeak. Programak beste azal bat izaten dute herritan; onek ba zirudien egia esan nahi zuela... gure festen lotsa.

Eta etzen halakorik oraikoan. «Programak» etzuen adierazten hango giroa. Behin eta berriz, huts egin du festa-programak. Zorionez, Gaztediak agintzen zuen herrian. Azaleko neskaren gau-atorrak etzuen euskal dantzarien jantzi egokiekin zer ikusirik. Noiz ikasi duten ain eder-




ki dantzan, galdetzen dut nik. Huarte Arakil'ez ari naiz hizketan. Herri konzintzia berri bat sumatzen zen gaztetan. Hau da poza!

Lan aundiekin egin dute lenbiziko sayoa: billerak egiteko barne zoragarria, txistua eta neska-mutilen dantzari taldea. Dena goizetik gauera, bat batean, Udaberriko intza bezala.

Ez da bat edo biren lana: berrehun langile, Huarteko Gaztedi guzia sartu da ekintza hontan. Hau da harrigarriena. Etxe baten egiteko harria inguratzea ez da ain zaila; paretak jasoko dituzten eskuak uztartzeak ematen du lan. Huarte Arakil'ek gazteak elkartu ditu. Beste askok nahi luketena egin du. Bide burnizko berrian lenbiziko aldiz sartu den treina iduritu zaigu. Aurrera mutillak!

Festetako programa azalak etzuen halakorik adierazten. Usai oneko ur gozoa unti txikitzen ez galtzeko estuturik ematen den bezala, gorderik, ixilka eman nahi izan digu aurten Huarteko euskal giro berria. Zorioneko gezurra, herritako festetan.

J. M. S.



# Atención a Navarra

Oso pozik argitaratzen dugu hemen «Cuadernos para el Diálogo» izeneko Illerokotik artu dugun irakurgai hau, guk naparrok Madril aldeko partean Naparroari buruz, esaten dituzten gauzak irakurri eta ezagutu ditzagun.

## ATENCION A NAVARRA

Todo país, y toda región de él, tienen su leyenda, su «pandereta», que rara vez coincide con la realidad, pues responde a situaciones pretéritas. Tal es el caso de Navarra, parte esencial y cabeza del País Vasco, a la cual suele interpretarse —cuando se le presta atención desde Madrid— o equivocada o incompletamente.

Pues lo cierto es que Navarra ha experimentado a lo largo de los últimos años un extraordinario progreso, que se traduce en transformaciones de todo orden. El desarrollo industrial por una parte, el establecimiento de una Universidad por la otra, y mil factores más al amparo de la auto-administración foral más honesta y competente, han sido los principales elementos de la transformación en curso.

Considerada ésta desde un aspecto sociológico, salta a la vista que una Región con una economía agrícola y semilatifundista, al ser reemplazada ésta por una economía industrial que a la vez fija o capta la cultura superior moderna, forzosamente producirá cambios en el estilo de vida, en las costumbres, en las relaciones humanas, y, por consiguiente, en las ideologías por la interrelación entre éstas y las superestructuras.

Por tanto, esa idea de que Navarra es la patria del inmovilismo ideológico como corolario a su reconocido apego a la tradición, e pieza a estar en desacuerdo con la


realidad. Más cierto sería decir que el tradicionalismo navarro, sin abandonar sus esencias, está atravesando la misma crisis poco más o menos que atravesó el tradicionalismo en las dos provincias hermanas que primero se industrializaron —Vizcaya y Guipúzcoa—, pues ahora como entonces y ante la irresistible presión del mundo circundante al que ahora se suma el «aggiornamento» de la Iglesia Católica, se flexibilizan los esquemas rígidos del tradicionalismo patriarcal, se depuran, y, en definitiva, sufren una catarsis que permite distinguir lo que es tradición «per se» y lo que es tradición «per accidens». Si a ello se añade la decepción del tradicionalismo, entonces y hoy, ante los resultados para él de las guerras civiles, el paralelo resultará muy verosímil, pues aunque en el siglo XIX perdiera las guerras y ganara las paces mientras que en el XX ganó la guerra y pierda la paz, el resultado viene a ser el mismo.

Por todo ello, una de las corrientes reformistas del tradicionalismo navarro, está repitiendo el proceso de «euskeringización», que a fines del siglo XIX experimentó parte del tradicionalismo vizcaíno y guipuzcoano, haciéndolo esta vez compatible con un talante socialista, pero sin necesidad de pasar por la antesala del liberalismo, que, por otra parte, si un día fue sinónimo de progresismo hoy lo es de conservadurismo en amplias zonas del mundo y especialmente de Europa. Esta cre-

ciente toma de conciencia «euskeringizante» del navarro actual, le lleva probablemente a sentirse cada vez más ligado a sus hermanos del resto del País Vasco, miembro con ellos de una unidad geográfica, histórica, política y espiritual común, sin por ello dejar en absoluto de seguirse sintiendo profundamente navarro. Es interesante destacar esta conciencia de solidaridad, pues se trata de un estado de ánimo que antes no existía tan marcadamente.

Al acortarse vertiginosamente la distancia que separaba a las dos provincias vascas marítimas —Vizcaya y Guipúzcoa— de las dos interiores —Alava y Navarra— la solidaridad entre las cuatro se hace mucho más verosímil, ya que desaparecen innumerables motivos de reticencia. El «imperialismo» del capitalismo bilbaíno y el monopolio de su Universidad, la superioridad cultural o refinamiento del guipuzcoano, han dejado de ser factores diferenciales, pues en Alava y Navarra han aparecido poderosos contrapesos con su desarrollo acelerado que condicionan necesariamente el equilibrio y al restablecer la igualdad facilitan el mutuo entendimiento.

Conviene estar, por tanto, atentos ante Navarra, y tratar de comprender el más hondo significado de sus aspiraciones y problemas, aunque no sea más que para desterrar otra «pandereta» y manejar la verdad escueta de un pueblo nobilísimo al que se deben todos los respetos.



## Lan zalla

Gure gerratean zan. Muga inguru oketan, soldauak nunnai. Bostbatsei gizoneri, soin bana metazirikin iratzetara zoazinean, «alto» bota zieten soldauek, norat abian ziren galdetuz: behar bezalako erantzun aski garbia artu ere bai metaziri tartetik, «a escribir!».

Beso ta beatza laneko tresnetara luzetuz, «auetek dire gure liburua» bein baño geiagotan diote nekazariak. Baña, danok ez gara nekazari.

Egun osoan lanean leher egin duen bat, paper batek dionari nekez lotuko da arratsean. Ez gabiltz ordea egunoro lan ta leher goizetik arratsera. Nork irauñ?...

Gure izkuntzan irakurtzea edo leitzea gauz zalla dala ere edatzen dugu gañera, duenari kendu naiaz bezala gure paperak eskuratzeko gogoia.

Gaitza ez daukegu astirik ez izatean, ez eta nekean. Bertze aunitz gauzetarako artzen dugun bezala, leitzeko ere ar genezake astia, guk ala nai izanez geroz.

Euskal liburu gutxien iabe gara: ni seurik bai, egia errateko. Euskal paper gutxi eskuratzen ditugu: len, «esku motxa» ta bertze bertso-berri saltzale batzuk erri kantari ibiltzen zitzaizkigunean baño gutxiago naski. Eta, gutxi oketatik, zenbat irakurtzen ditugu asieratik akitzerañoan?

Eskuetan daukezun illeroko au artzen zuela nekien gazte bateri galdegin nion bein: «zeintsu da zatirik atsegigarriena zuretzat paper ontan?» eta, erantzun auxe artu nuen: «noizean beinka, irakurri naietz asten nai: baña, ain zalla zait!... Ederazkorentzat, bazeuken asti: illeroko unekin adiskidetzeko gogoia behar ordea...»

Bere osaba xaharraz mintzo zen zatitxo batean ohartu zanetz galdegin nion paper au artzen duen ez ain gazte bateri «Noiz ekarri du, noiz? Illero artzen dugu errebita». Artzea aski balitz! Illabete artan bertan ekarria zuen zuzenki osaba zelakoaren potreta ta guzi.

Artu, bai: leitu, ez. Ez da deus gostatzen artzea: on zerbait ekar dezaguke gañera: su pizteko, gosariak biribilkatzeko... on zaizkigu paper ok.

Saririk ordaindu behar ezak ere balioa txipitzen ote dion illeroko uni... Garestien soñua dakarkigute berriz euskal liburuek. Balioeza balio ez duelako ta garestia garesti zaigulako, ez dabiltz bat eta bertze ain ados gurekin.

Osasunaren kaltetan omen da geiegi irakurtzea. Ez bildurtu: ez gara, ez, gaitz unekin ilko. Gutxiegiaren kalteak nabari ditugu nonnai.

Neraz ere aski alferra nauzte eta, aunitz-aunitz eskatzera ez noa: astean minutu batzuk bedere ez ote dezazkegu gure izkuntzan zerbait-zerbait irakurtzeko edo leitzeko ar?

IBARRONDO

## ESKUALERRIKO LEIOA

### JOSE OLAIZOLA MUSIKALARIA IL ZAIGU



Jose Olaizola jaunaren irudia. Tudelako Xabier Sueskun pintoreak egiña, Peinado eta Maem foto egileek ertratatua.

Hernani erriko seme zen Jose Olaizola Musikalari iaio eta famatua il berri da yoan den Garagarrillaren 8 egunean bere Donostiko etxean laurogei ta sei urte zituelarik.

Musika-egille ona izan zen, soñu konpontzaile trebea, euskal musikari fama eta ospe aundikoa.

Bere lanen artean hona hemen ezagunenak: «Agur, Begoñako Ama», «Agur, izar ori», «Urte leloak», «Oleskari zaharra», «Sorgiñeta», «Astoi ipuilaria». Elizako kantua ere baditu egiñak baita ere «Euskal Mezak». Bere lanen artean hau da mundu guzira korritu duena: «AGUR JAU-NAK» denok dakigun kantua.

Agur, Olaizola jauna! Agur t'ardi, biotzez. Goian bego.

### PAKEAREN ALDEKO LITERATURA SARIAREN IRABAZTUNA: DONOSTIKO FELIX ELEJALDE

«Prima Luze» izeneko Argitaldaria, edo Editorialak, «Pakearen aldeko Sari bat» antolatatu zuen. 71 iskribitzaileek beren liburua bialdu zituzten sari honen irabazi beharrez. Felix Elejalde Donostikoa izan zen sari hau irabazi zuena. Gure goresmenak.

### «VIVO CANTANDO» EUSKERAZ SALOME BERBERAK KANTATUA

«Zeruko Argia» izeneko euskal astekari ederrak berri hau ekarri digu: «Salomek «Vivo cantando» erdal kantu ezaguna euskeraz kantatu duela» eta disko hau salgai dagola.

Hona hemen «Vivo cantando» kantua letratu euskeratua:

Bide galduan zear, zenbat gau zure billa! zuri itzegin nairik, nairik eta ezinda. Orain urrean zera eta odola ta ametsa piztuak dira.

Zugatik biurtu dira nere malloak amets argian, kanta gozoan, bañan, zerbait gertatzen da gure artean: ikaraz nabail zure ondoan.



Zugatik biurtu dira nere malloak amets argian, kanta gozoan. Ezdakit zure maitasun jaio berria noiz arteraño gordeko detan.

### «OPERACION GEMINIS» DELAKOA BITORIAN OSPATU ZEN

Pasatu den Garagarrillaren lehenengo egunean Bitorian (Gazteiz'en euskeraz) 1969 urteko «OPERACION GEMINIS» biltzarra, edo «Euskalerriko Bizkien Billera Nagusia» egin zan.

Euskalerriko txoko guzitatik Bitorian bildu ziren egun hartan euskaldun bizkiak, Iruña, Donosti, Bilbao, eta Eibarreko autobusek goizeko amaiketarako Bitoriako «Autobusean Geltokian» bizkiak ehunaka utzi zituzten egun osoa ederrean pasatzeko.

Goizean Meza Nagusia izan zen eta «amaiketakoa».

Arratsaldean hango Frontoian besta pollita izan zuten.

1970 urteko Billera denek onhartu zuten Iruñan egiteko. Bitoriako hango «Caja de Ahorros Provincial» delakoak antolatu zuten, eldu denekoa, Iruñakoa, Iruñako «Caja de Ahorros Municipal» delakoaren laguntzarekin egingo da.

### LOROÑO EUSKALTZALE JATORRA

Denok ezagutzen dugu Bizkaiko Txirrindulari famatu hura baño ezganakien gauza da euskaltzale zintzo dela.

Loroño Larrabezua izeneko errian jaioa da eta sortzez euskalduna. Euskaldun aunitz badira munduan; euskeraz mintzatzen jaiotzetikan ikasi zutenak badira asko gure Euskal Erria maitean, baño zoritxarrez euskaldun hauen artean ezdira denak euskaltzaleak, hau da euskera maite dutenak. Baño gure Loroño Txirrindulari on izan zena euskaldun dugu jaiotzez, bai, baño baita ere, Jaunari eskerrak, euskaltzalea gertatu zaigu zintzo eta bizkorra.

Hona hemen Donostiko «La Voz de España» egunkarian euskeraz idatzi zuten irakur-lana (Bizkaiko izkeraz idatzia dago, baño errazki entendituko dute euskaldun guziek).

### «MERCKX, BAZTERTUA

«Italia'ko Giroa garrantzi aundiko lasterketa da. Italiarrak alegiñak egiten dabez (dituzte) irabazte arren. Begi txarrez ikusi oi dabe (dute) atzerritar batek garraile urtetea (ateratzea, irtetzea).

1909 garren urtean egin zan lenengo aldiz Giro-lasterketa ori, Tour de France delakoa baño sei urte geroago. Eta 1950 garren urtera arte ez eban (zuen) atzerritar batek irabazi. Hugo Koblet suizaterra izan zan ori egin ebana (zuen). Fausto Coppi ospetsuak bost aldiz irabazi eban (zuen): 1940, 1947, 1949, 1952 eta 1953 urteetan.

1958 garren urtean, neu zaspigarren sartu nintzan. Beste italiar entzute aundiko batek irabazi eban (zuen) urte orretan: Ercole Baldini deritzanak. Eta nire aurretik, seigarren, segundu gutxiren aldeaz, Migel Poblet izan zan. Ain zuzen be (ere), Coppik eskatuta, argaki (foto) auxe egin genduan urte aretan: Ezkerretik eskumaldera begiratuta: Galdeano, napartarra, Baldini irabazlea, Coppi txapelidun guztien txapelduna, eta neu. Erdi parean, atzerago ltuat. Giroa beti izango da «Giroa»... beti etxekoan alde! Ederra egin dautse (diote) aruten Merckx gizajoari! Uste dozue droga artzen asiko zala, beste guztiak baño nagusiago dala milla bider erakutsi ondoren?».

Hemen ikusi duzute zer ongi Loroño euskeraz izkribitzen duen!

Bejoindezula Loroño eta segi aurrera euskerari eusten!!

IKUSLE

## Rikardo Arregi' ren eriotza



Errotik samindu gaitun ustegabe-ko berria: Ricardo Arregi il zaigula. Gipuzteko Andoain erriko seme zintzo hau, euskaldun garbi, paregabe euskaltzale, euskeraren aldeko neka eziñeko langille, euskal idazlari trebe eta sozial-afereetan zuzendari argia zan.

Gazte oraindik, 26 urte zeuzkan iltzean, bere lanak gure begien aurrean egunero izaten genitun, bai euskal izkribitzaile moduan «ZERUKO ARGIA»-n, eta «JAKIN»-en, bai IKASTOLEEN gazetan eta ALFABETATZE lanetan irakasle eran, aurre euskeraz mintzaten, eta euskaldun gazteei euskeraz izkribitzen eta irakurtzen iralasteko.

Bere bizi laburrean lan aunitz utzi du egiña Euskalerrian onerako. Gure guzian aurrean izango ditugu bere irudi eta egintzak.

Ar beza, Betiko Bakea eta Handik euskeraren aldeko lanetan gaude-nok begira gaitzala baita gorde ere gure Euskalerrri maitea. G. B.

# Bera, nere jaio erri maitiari bere urteroko jai egunetan, abestia

BERA erriya, nai dizut zuri itxura onian kantatu. Ortako, Jauna, Zuri laguntza bia'izut gogoz nik eskatu.

NAFARRO erriya, badezu eliz bat San Esteban izenekua, altxatu zanian Santu onentzat maitez eskeñitakua.

Erri onetxek bere Patroitzat poz pozez zaitu artua, ta bere jaia nagusiyaena Dagonillaren irua.

BERA'ko eliza nagusi au dago oraiñ berriro abestua. Oleo santuaz igortzia degu. Askoz geigo santutua.

IRUTASUNA Santu izenian Dagonillen amalaubian, ta BERA erriyak ondratu biar du urtero bere egunian.

Erriko jaia begira daude era bat zar ta gaztiak.

Ideki'itzatzue zabal zabalik danari deituz atiak.

Orregatikan urbilltzen zaizka ainbat gende ingurura. Alaitasunez beterik datoz zuekiñ bat egitera.

Inguruan dauden erri askok ere maite dituzte zuen jaiak, ta bizi toki eder orretan dauzkate biotz osuak.

Anaitasuna aundi bat dezu erriz erri zabalduta, Gipuzkoa dela naiz eta Franzia, denak zereganatuta.

Besta egunetan ondratu'itzatzu aide, arrotz ta etxeak otordu ona aukerarekiñ: Utzi geroko eltzeak.

Entzuna nago bolada ontan erri ortako berriyak, ainbesterañi azi zerala notizi arrigarriyak...

Irauzi bide ugari ugariak daukatzula eskuetan. Etxiak asko altxa dirala orko bazter zabaletan.

Ortikan, egiz, sortuko dira arazo izugarriyak lokartu gabe iduki'azteko erne begi-belarriyak.

Orko gaztetxo neska-mutillak, ¿maite al dute Egiya? ¿Saiatze'al dira gogo biziyan berak dun onaren billa?

Ez naiz inor ni itz egiteko: bakarrikan itz banakak. BERA'tara bat nauzelako maite indarrian esanak.

Alaitu, bada, egun auetan txukunkiro eta garbi. Erantsi gure erri oneri izen ona beti, beti.

JOAQUIN ALDAVE

## Bertso zahar batzuek

Bete da mende bat —ehun urte joan dira— Carlos VI'garrenak bere lehendabiziko guda kolpea eman ezkerotik. Hori zan 1869'ean. Ta oraindik gure herrietako zaharrak esaten dituzte gerra horren eta beste gerra karlisten eziñak, asarreak eta bildurrak, haiek ere —guda guziak bezala— herriko jendeari ekarri zizkietenak. Izan ere hementxe gure herrietan jokatu baitziran burruka haiek.

Ta orain dala hainbeste urteko gora-bera hoiak, aita semeari ta semeak illobari esandakoak, izaten dute alderdi biguin ta xamur bat: Ez baitira eginkizun aundietako kontuak, baizik eguneroko kontu txikiak, alde bateko ta besteko tropa herri koxkorretan dituzten oroi-men txaharrak, eta odolaren bero guziakin gudan ibili ondorean deustara ez dala iritsi ikusteak dakarkin trixtura. Hori da egiaz kondairarik garrantzitsuena. Eta gertatzen da nahikoa iruditzen zaigula askotan jakitea beltzak edo zuriak irabazi zutela, ta askoz ere mamitsugoa litzake askotan jakitea zer ote dioten izandutako guda batez ezpatak edo fusillak edo kañonak erabili zituztenak.

Lehenengo batean, billatu gabe arkituak, entzun nitun bertso zahar batzuek esaten ari naizen orain dala ehun urteko gertaera hauetaz. Gutxi dira, bi lauko ta zortziko bat.

Lehenengoak aipatzen du, zalantzik gabe, Saboyako Amadeo, naiz ez esan izenik. Gizon ona zan, liburuak diotenez Amadeo zalako hori, borondate onekoa beintzat. Italianoa ordea ta handik ekarri ta jarria Isabel bigarrenak iges egin zuenean, ez baizitzien iduritzen erregerik gabe egon zitezenik. Baina alde batekoak eta bestekoak danak gorroto zioten eta parragarritzat hartu zuten eta bi urte bakarrik iraun zitun. Lehendabiziko lauko aipatu hortan parragarri uzten du ta arunt tonto bezala, eta izen hortako erregeak etzezaken iraun.

Urrengoetan ageri dira gudak dakarzin desiluzio ta samiñak. Bertso hauek ez dute gai berdina eta baliteke ez izatea garai berekoak ere... badirudi zortzikoak hitz egiten dula karlisten lehendabiziko gudaz; hura bakarrik izandu baitzan sei zazpi urtekoa. Eta azkeneko utsegunea: Zer ote «bonbeatzeko»'ren esan nahia?

Erregea badegu italianoa, italianoa pertz konpontzalle eta gañera tuertoa. pertz konpontzalle eta gañera tuertoa. Batzuk karlistek eta bestek liberalak, bestek liberalak ore baten opillek denak igualak

ore baten opillek denak igualak Beltzak bonbeatzeko ontzi zar batean junta egin genduen geren artean. Sei zazpi urtean alperrik nekean orain emen gabiltza beltzen artean. GORKA TRINTXERPEK



BERA'ko erriak, jaietan, agurtzen zaiztuzte.

## NERE ARREBA PAKITARI

Gure ametsak behar badute egin ditezkenak bakarrik, gure nahiak beteko diranak bakarrik, gure asmoak egingo diranak bakarrik, gure griñak debekatu gabeak bakarrik, nik kenduko dut nere izena gizonen artetik.

Ojinoren semea banaiz ta banintzala jakitean goibeldu baziran, maitatu nindutenak begiratu bazioten nere besoen indarrerri ta arpegiaren ederrari, nitaz negar egingo dutenak oroituko badira nere irabazietaz, Ta ezagutzen banaute errenkada luzean zenbaki batengatik nik kenduko dut nere izena gizonen artetik.

Baina nik neronek trukutzen badut noizbait txanpon-sakela eskubide batengatik ahoa estaltzen bazait urre ta zillarrarengatik ikaratzen banaute giltza soinuagatik ta nere maitasuna —arratsaldean asia— bukatzen bada goizetik ken bezaidate izena gizonen artetik!

(Hola zion herriko zaharren jakinduriak liburu ta horri gabeko esanera zaharrean: «Gau batean izar bat arrapa omen zun ta erakutsi zigunean ipurtargi bat ikusi genun bere eskuan»).

G. T.

## Ez aski abil ni

Nik adiskige nintuenak lan errazetan, lan zallenetan, zuzen iokatzen ziren danak. Begi oneko lagunakin, okeneratuz, aiekin batuz, nintuzke gauzak ongi iakin.

Ekeneratuz nik gogoa, nere itzetan, nere lanetan, nuke begi-on os-oso. Aiekin batuz nere lana, aien txaloak ta itz goxoak etor litezke neregana.

Baña ez naben amor eman: ergel izena, kaxkarrarena, orain beharko nik eraman. Lanetan ez naiz arrigarri: makur batean,

gaizki bertzean, denetan beti irringarri.

Egun gaziko ibillerak bakardadean, laguntartean, ornitu dazkit irri berak. Eginkizuna dedanean, nondik asiko ta iarraikiko, milla istillu barrenean.

Eginbeharra akitzean danak parretan (edo garretan?...), ni, lotsaturik, an, gordean. Nere lagunen lan ederra! dena, zuzenki, oso ederki: ez da, ez, ura lan alferra!

Nere ioeraz irriz nabil; nere lanetan, ibilleretan, ez naizelako aski abil.

IBARRONDO

# IKASI, MIKASI...

## Joshe ta Josheparen semeak

### • Joshe ta Joshepa:

¿Ze izango da, denboraz, zuen semetxo oietaz?  
¿Izango dire zintzoak, langilleak, kristau fiñek eta bioziak?  
¿Edo, izango dire gaiztoak, alperrik, mozkorak eta esker gaiztokoak?  
Zuen eskuetan dago. ¡Eraiten dena, biltzen da...!

Nere bigarren kartatxo oneri asiera emango diot gertaketa negargarri batekin. Non eta noiz gertatu zen, ez dakit; irakaskor aundikoa da biñepin.

Bein, il bear omen zuten erriko plazan, sokatik zintzilika, lapur eta gaizkille bat. Denbo artan oi zen bezala, galdetu zioten zerbait esan nai ote zuten. Baietz esan zuen gizagajo arrek; zerbait esan nai zuela.

Ara, emen, zer esan zuen:

"Jainkoan aurrean agertzeko tranzean negoalarik, mesedez eskatzen dizuet guztiari nere gaiztakerien barkazioa. Nik, nere aldetik, barkatzen dietet guztiari neri egin dizkidaten irriparre ta itz gaizto guztiak; itz eta egite txarrak ere. Guztiak eta guztiak barkatzen diet.

Bakar bakarrik, kostatzen zait barkatzea... ¡nere aita ta amaril!

Bai, kostatzen zait, zergatik ni txikia nitzela, zabarkeriz, nik nai nuena egitea utzi bearrean, edukazio ona eman balidate, emiten orain larri estu aldi ontan arkituko...".

Itzalditxo motz eta zorrotz au aditu zuten gizon eta emakume guztiak, ikaraz mututa gelditu omen ziren.

### • Joshe ta Joshepa: karta au biezat da, baño, batez ere, Joshepa, zuretzat. ETXEKO JAUN, esaten diegu euskaldunak senarrari, baño etxe geietan emakumeak agintzen dugu...

Beste kontu batin adituko duzu, Joshepa, nik diotezuna.

Inglaterrako erri batean, il omen zan gizon aberats bat.

Ez urbilleko ta ez aparteko aideik etzeaukalarik, utzi zituan diru guztiak bere erritarrentzat. Non gizonak agintzen zuan etxe bakoitzari, eman bear zaiou, bere partez, zaldi bat. Emakumeak agintzen bazuen, bei bat. Atzenai betezaleak (testamentarioak), asi ziren etxer etxe galdezka:

— "Etxe ontan, ¿nok agintzen du gizonak edo emakumeak?"

— "Emen, emakumeak nai duena egiten da beti. Parrez edo negarrez, emakumea bereakin ateratzen da..."

— "Orduan, emen utziko dugu beye".

Erri geiena ola ibillita, eldu ziren etxe batera, ta egin zuten betiko galdera:

— "Etxe ontan, ¿nok agintzen du?"

— "Emen —erantzun zien gizonak—, ni naiz jaun da jabe".

— "Orduan, emen utzi bearko dugu zaldiya. Ta, ¿nolakoak nai duzu, beltza edo zuria? Bai ditugu bietakoak..."

— "Zu, Mannthoni, ¿nolakoak nai duzu, beltza edo zuria? galdetu zion nagusiak bere emateari".

— "Emen, eme, utziko dugu beye: ¡emakumeak agintzen bai du!" erantzun zioten testamentarioak.

### • Joshepa: ¿ez da ori bera gertatzen zuen etxean?

Nik uste det, baietz. Orrengatik esan dizut karta au, batez ere, zuretzat dela.

¿Nai dituzu azi zure semeak Jainkoan bildurrean? Zure eskuan duzu. Zu nolakoak zeran, olakoak izango dire zure semeak.

Ekus itzazu ejemplo batzuk:

San Agustin, Santa Monika'ren semea zen.

San Juan Krisostomo, Santa Antusa'ren semea.

San Gregorio, Santa Silbia'ren semea.

Lau anai arrebak: San Basilio, San Gregorio, San Pedro ta Santa Marikina, Santa Emilian semeak.

San Benito, Santa Abundanzian semea, ta Santa Eskolastika'ren anaya.

Santo Domingo, Santa Jaunaren semea.

Santa Jertrudis, Santa Isabel'en alaba.

Sueziako Santa Katalina, Santa Brijida'n alaba.

Ejenplotako, aski dituzu. Geiagoentzat lekuri ez det.

Ejemplo ezagun bat aipatzeko, oroitu zaite zure amataz, ni nere amataz oroitzan naizen bezala.

«Ni salbatzen ba'nai —ta espero det Jainkoan miserikordiaz—, zor dakioket nere ama txit santari» — zion San Paulo Gurutzekoak, Pasionisten Fundadoreak.

Mirariz ez ba'da, ola izan da, ta ola izango da beti.

Jesukristok berak dio:

«¿ARANTZAK EMATEN ALDU MATSIK, EDO LARRAK PIKURIK? ALAXE, ZUGATZ ONAK FRUITU ONAK EMATEN DITU, TA ARBOLA USTELAK FRUITU TXARRAK». (Mat. VII, 16-17).

### • Joshepa: zuk esan ziden, Naparroan jaioa zerala. Seguro aski, gaztaroan nekazalkoan ibillia zera. Orduan, ba'dakizu, alorretan biltzen dela, eraiten dena. ¡Ori bera gertatzen da semiekin! ¡Agudo edo berandu, gaztien biotzetan eraiten denak, fruitua emango du!

Aditu zazu azkeneko ejemploa.

Federiko Txopin, musiko famatua, Polonian jaio zen eta il zen Paris'en 1849'garren urtean. Bere ama elizarakoitasun aundikoa bai zen Txopin, gaztaroan biñepin, bizitu zen Jainkoan bildurtasunean. Gero, munduz mundu ibillita, bazirudin galdu zuela erlijioan azkeneko arrastoa ere. Ala, eriotzeraño gaizki zegoala, ta Elizekotaz ez aditu naita ere, etorri zitzaion ekustaldi bat egitera Jelowieski, apez jauna, bera bezala Polonian jaioa. Jarri zion eskuetan Gurutze Santua, eta esan zion:

— "¿Ez duzu nai ezer, eriotzeko orduan ere, zure amak erakutsitako erlijioakin?"

Itz aukeratu zuten biotz gogor ura. Artu zituen Elizeko Sakramentu guztiak, debozio aundiakin, eta, azkeneko arnasetan zegoala, esan zion ainbeste mesede egin zion apez jaunari:

— "Agur, Jelowieski. Bedorre izan da nere adiskide oberena. Bedorrek ezpanindu oroitu nere amak erakutsitako fede santua, zakur bat bezala ilko nintzen..."

### • Orain, bieci; Joshe ta Joshepari:

¿Nai dituzte zuen semeak zeruan ikusi?

¡Azi itzazute gure erlijio santuan!

Zuek badakizute nola dagoan mundua, zer ekusten den kalean, auzoko etxetan...

Ez begitu, ze egiten duten aldamanekoak.

Emaezue ejemploa, eta erakutsi semiei zeruko bidea.

Baño, ¡biek batean!

A. ASTIZ ARREGI

## BERTSOLARIA.....

# UNIBERSIDADEAN IKASTEN EZ DAN JAKINTZA



### ITZ AURRE...

Ainbeste denboran etxetik urrun ibilli ondoren... malda gora zaiku idatz-makina. Beatzak nagituak, erdoituak bezela, ezin mugiturik daude.

Baño, asitako lanak bear ditugu bukatu. Eta lenen, bertsolari gaia. Bada denbora pixka bat, «Bertsolari eskoladunak eta... Ez jakiñak» izen-buruarekin, guk Markina'n emandako itzaldi aren zati bat agertu gendula.

Itzaldi aren beste zati bat agertuko degu gaur.

### BERTSOLARIA ETA FILOSOFIA

Asteko: Zer da FILOSOFIA...?

«Gizonak jakin lezazken gauzen ezagutza on bat». (Descartes).

Eta gai oneri buruz Basarri'k egun batez itz oiek idatzi zitun Z. Argia'n:

«...Euskaldun bertsolari artzai, nekazari edo langille bati, nola eskatuko diogu filosofo aundi izatea...?». Bertsolariak erri xearren fruitu dira. Poeta aundiak bezela ez dira ibilli Unibersidadeak zapalduz eta aitan ikasiaz».

Ez gerta Basarri'ren iritzi orrekin ados. Ortantxe bai-dago gure bertsolarien sustraia eta daukaten dalentuarren indarra, au da, beste eskolarik gabe, ez Unibersidade eta ez beeragoko eskolarik gabe, FILOSOFUAK izatea, au da BERTSOLARI izatea.

Geiago oraindik: Unibersidadetik igaro diran beste gizon askok baiño zentzu geiago, buru argiago bat izatea, mundu onetako eta batez ere gizonari dagokizkion gora-berak aztertzeko eta jujatzeko.

Ortan dago meritua. Ori da bertsolarien jakintza, Unibersidadean ikasten ez dan jakintza.

Doai miresgarri orrek esanazitezen dio D. Manuel Lecuona'ri: «...Bañan neronek ere ibilli asko egin ondoren, neronek ere ez aldakit noski ezertxo gai xoragarri onetaz».

### BERTSOLARIEN JAKINTZA: ECHEGARAY JAUNAREN IRITZIA

Ona emen EcheGARAY, gizon jakintsuaren iritzia bertsolarien eskola ortaz:

«... Batzuk idatzi eta liburuetan ikasten deguna, beste batzuk Jainkoak gure begien aurrean ipiñi dizkigun zela, baso ta txara, ibai eta erreka koxkor, arkaitz eta leiza zulo, itxaso zabal, ots garbi ta lañoetan ikusten dute.

...Gure jakitez ez degu arrotu bear. Guk liburuetan aurrean urte asko igaro ta gero ere, ez dakizkigun gauza asko dakizki, goizetik aratsera lurrari aberastasuna ateranaiean dabillen baserriarrek, bere artaldearen ondoren dabillen artzaiak».

NATURALEZA da beraz, EcheGARAY'en iduriz, bertsolariak daukan dalenduaren iturburu. Berekin eta sortetik dararak bertsolariak eskola ori. Ez du Unibersidadean bearrik gauzak senti eta ausnartzeko. Eta denboretan «sagardotegiak» ziran bertsolariaren eskolak, Udarregui'k zionez, egi aundi batekin.

Sagardotegietan egiten bai-zituzten bere saioketa eta ikasketak...

### NATURALEZA ETA...

#### ¡¡GIZONA!!

Baño EcheGARAY'ek aitortzen digun bertsolarien iturburu ortan, Naturalezan, gauz bat arkitzen degu eskas, eta balio du emen aipatzea:

#### ¡¡GIZONA!!

¡¡GIZONA!! bere griña eta sendimendu guziekin: maitasuna... gorrotua... gerla... pakea... lagunartea... familia... Erriaren etorkizuna... Eliza... itz batian, gizonaren mundu zabala, poztu edo sufriazituzten diguten gertakizun denekin.

Mundu orretan beti erne dago bertsolaria, nun... zer ikusi... edo entzungo duan.

Eta guk bear bada aitzakotzaz artzen ez ditugun esan eta gertakizun orietako asko, berak gordeko ditu, bakarrik danean Jainkuak eman dion apartarekin ausnartzeko.

Ori da bertsolari izatea, ortan dago pilosopia. Ori da BERTSOLARIA-REN ESKOLA ta JAKINTZA BEREZIA. Unibersidadeetan ikasten ez dan Jakintza.

#### BERTSOLARIAK ETA... ERRIA

Ez da beraz arritzeko, ez telebixio, ez radio, ez ta ere gaurko egunkari eta aldizkariak etzen garai artan, ez da arritzeko bertsolariak ERRIAN zeukan arrera eta oiartzuna.

Ortik, arrera ortatik, sortu ziran Euskal-Erri guztira zabaltzen ziran bertsolariak «Xenpelarrek jarriak...».

Orduko Xenpelar... Pernando Amezquetarra... Txirrita... Pello Errota ta beste asko, Erriak goguan zitun, eta bere bertsuak ezpañez-epain bazter guztietara zabaltzen ziran.

Bide batez esan dezagun, bertsuak ikasteko doai berezi bat dutela euskaldunak. Neronek ezagutu ditut bat edo beste, bein entzutia aski zutenak bost-pa sei bertsu buruz ikasteko.

#### BERTSOLARIAK ETA INTELEKTUAL-JAKINTSU EUSKALDUNAK

Arritzeko da, baño garai artako euskaldun jakintsuentzat, bertsolariak pekatari gogorrek ziran eta kaltegarri, bai euskerarentzat... bai eusko oitura edo moralarentzat, eta bai ta ere euskal-olerkiarentzat.

Bi adibide edo exemplu bakarrik aipatuko ditugu:

LAFONT. Bordeleko Unibersidadean euskal-irakasle dan Jakintsuak esaten zuan:

«... Les chansons qu'ils improvisent les bertsularis sont de valeur litteraire très inegale et ses impro-

visations n'ont souvent qu'un intérêt de circonstances».

«Olerki bezela ez dute balio aundirik eta... esaten dituzten gauzak ere ez», ori da Lafont jaunak esaten diguna.

CARMELO ECHEGARAY, euskoldidaze ezagun-aiptatuak dio:

«... Si pudieran reunirse todas las hojas volantes que por espacio de tres cuartos de siglo se hayan difundido con nombre de versos vascongados por los hogares de la región euskara, se formaría una enorme colección de groserías y simplezas, dichas de una manera eminentemente prosaica, y en un lenguaje incorrecto y plagado de castellanismos...».

Gure ustez, eta jakintsuak izan arren, euskaldun oiek etziztuzten bear bezela gure bertsolariak ezagutzen, ez Xenpelar... ez Bilin... ez Senpere'ko Mattin... ez Iparraguirre... ez Ligeix... ez Otaño...

Eta etziztuzten ezagutzen, ez gizon eta ez bertsolari bezela.

Ezin zezaketan bestela orrela mintza.

#### BEREZITASUN BAT

Gizon bat berexi nahi degu emen, euskal-jakintsu baten izena: «ALTZOL».

Onek goraldtu baitzitan bertsulariak lenengo. Onek eman zion asiera gaur ikusten degun bertsolarien berpizkundeari.

Bidezko da, beraz, guk emen, gure goresmen eta errespeturik aundienarekin, bidezko da gizon aren izena aipatzea.

«H»

#### P. S.

#### LECUONA ZAARRA JAUNARI

Nere lenengo idazkiari erantzunaz idatzi dezun lantxua irakurri det. Nere ustez azalari, izen-azalari «EZ-JAKIN ari», erreparatu diozu eta ez idazkiaren mamiari.

Len ikusi ez ba-dezu, gaurko nere idazkiarekin konturatuko zera bertsolariak ez dirala neretzat «EZ-JAKIÑAK», naiz eskola-gabatuak izan.

Eta oraindik bertatik aitortzen dizut ez detala geiago esango «ez-jakiña», eta bai «eskola-gabekua».

Baño, zure artikulan bada, argitaratu nahiko nuken beste zertxo bat...

## EUSKAL-FUBOLARIAK



Aurten Euskalerriko futbol-zaleak uros dira eta denak kontent bozkarioa nabari dutela.

Iruñe'ko «Osasuna» ohore guziekin Bigarren mallako gradora igo da, Katalunya'ko «San Andres» Azken-Partida irabazirik. Zorionak «Osasuna»'ko futbolariari. Ori nafartarrak kategori aundiagokora iganik Nafarroa'ren izena goratu eta leku onean utziko dute.

Bilbao'ko «Atletik» ere aurtengo España'ko Txapelketa irabazi du Eltxe'ko ekipa garaiturik. Bizkaitarren garaipenak bozkarioz bete gaitu.

Donostia'ko «Real Sociedad»'ek ere aurten garaitaldi ederrak egin ditu España'ko Txapelketan semifinaletarako iritxi zelarik. Ar ditzatela donostiar futbolari hoiek gure goresmenik bizienak.

Euskalerriko kiroltzaleak pozik gaude, aurten gure lurraldeko futbolariak gogor ari izanak dira eta aintzinat ere badugu uste bide bertetik yarraikiko direla. Zorionak.

ANZANARKI

# ERRIZ - ERRI



## SALDIAS



### BELARRAK EGITEN

Artoari lendabiziko jorra emarada, jendea belarretan asi da. Egiteko beharra badaukate. Asko etzanak daude. Olakoetan lagunik onena, belarrak aisa egiteko, denbora ona izaten da. Bear bada, orañarte ez du geiegi lagundu.

Aurten ere, iaz bezala, belar urte ona aterako da. Baño gertatzen dena da, belarrak egiten denbora franko bear izaten dela, orregatik soroko-belarra denboraz egin faltan asko ondatzen dela eta berria ateratzea galerazi egiten duela. Gauz ori erremediatzeko oso ongi etorriko lirake belar-zuloak.

### ELIZA ZURITTUA KANPOTIK

Eliza eta Elizetxea zuritu dituzte kanpotik. Berez zuria eleiz gutxitan ikusten da, kanpoko aldetik emana. Guk, etxe-gille nagusi batek ala esan zigulako, eman diogu zuria. Eman dioguna «pintura», bustia ez pasatzeko gisakoa da. Kisua baño obeago bearrez eman diogu. Ez dakigu zer ondore emanen digun.

Elitxeko atarian itsi tiki bat egin dugu, loretegi-txo bat egiteko asmoarekin. Itsitzeko erlaja burnizkoa eta zimitorioko sarrerako atearen antzera, ezpata duna.

Botarria, iturritik plaza-alderaxego jarri dugu. Berak ortxe segittuko du gure erriko jostaketa zar baten testinguntza ematen.

### KANPO SANTUAN ATE BERRI

Kanpo-santuan burnizko ate berri bat jarri dute, ermittetik aparte. Nik uste premizkoa zela egin den ate ori.



## LEITZA

Inguru zaizkigu zeinbait leitzetar galderatuaz, ia «GURATZ» mututu al zan betiko, edo kukuaren antzera aldzikari diran beren ariketak. Oroitzen dirala, Gurazko laño ta aintzigan azpitik esan giñuzen berrietaz; eta eskatu digute zerbait idatzi dezagun «Zeruko Argia» ta «PRINZIPE BIANA»-N, ba aspaldi ontan ez da iñor oroituz Leitzaz.

Oar au entzunaz, emen gatoz, gure leitzarrak, zuen nai ori betetzera. Gai aunitz ta onak dauzkagu bilduta gure txabolan, lantegi begiko ontan. Gai onak esan degu, gure ustez, jakiña, eta danari ala ez balitziokete iduri...! Ez degu ordea iñor miñean jo nai, ta poliki-poliki ibilli bearra dago. Beti egia esatea atsegin zaigu, baño onek ematen ditu eznaiak.

Gaurkoz beintzat, gai oietan goxoena, kuttunena, begikoena nai degu idatzi: **Mikel Aingeruaren etorrera Leitze'ra.** iZer arratsalde zoriontsua izan zan Jorraiñaren lenbiziko larunbatan! 7'ak aldean egin zun bere sarrera Aingeruak Iruña aldetik eta bidera atera zizkitzaion ostetalde aundiak, ezkill berrian doñu atsegiñak laguntzen ziela, ongi etorri bat ematera, Betiko antzera, gure Elizako Gurutz ederra eta Mikel Aingeruan iduri begikoa elkar-

tu ziran muin batean; bereala Aralar'ko Apaiz jaunak onetsi zitun gure soro, belardi ta mendiak, eskatuaz Goiko Jaunari nekazarien lana alperrik ez dedin izan, eta gaizgabeak landare ta arnariak, ekaitz eta izotzangandik, xagu ta bestelako pixti guztietatik. Erria ingurutuaz agurtza otoiztutzen zan bitarte, ibilli eder ontan, gure Apaiz ta agintari jaunak buru zirala, alderdi guztietara zabaldu ziran Mikel Deunaren bitartez, ziñezko eskariak. Elizan, aundia izan arren, etzan tokirik an bildu ziranak lasatasun pika batekin sartzeko. Zenbat gizonetzko (au atsegiñak gaurko egunetan) emazteki, gazte ta adin urreratuak, batezere ainbeste ama gazte beren aurtxo mardulak besotan zaramazkirela, Mikel Aingeruaren iduria muxukatzerela. Iru laurdenetik ordu osora iraundu zun, Iduri au jauresteak. Denbora ontan etzan ixildu abestetik «Mikel-Mikel gurea zaitu Euskal Erria» eta beste era bereko gai jakiñak, ariñ-ariñ abestua erri guztiantatik.

iUra oste saillan emana! iZer dezu Mikel Donea, ola biotzak be-roazteko? iNork ote du indarrak aski, ainbeste gizon-emakume, gazte ta aur astintzeko? iEzkill berrian doñu eder ori ote da gertakizun au gure begien aurrean jarri diguna? Dana on da Jaungoikoa Gorestea, bai baña, Berari atsegiñena zaiona, erriaren siñismena agertu dana, Mikel Aingeruaren bitartez, batezere aurtxo txikiak, arkume antzeko maraskakin pillaka aurkeztera Mikel Donearen oñetara. Beste bat artio.

### GURATZ



## BAZTAN

### BESTAK

Aurten arizkundarrek beren herriko bestak bi egunez aintzinatu dituzte eta hola eginaz Sanjuanak igandearrekin asi ziren. San Juan mezperagokian lehenbiziko eguna, arratsaldeko seieta arizkolariek eta bertsolariak. Aizkorian ari izanak dira Latasa eta Arizkun'go Altzu biet buruz buru. Bi aizkolarien egin-kizuna: Altzubi'ek zortzi egur kana-erdiko eta Latasa'k berte zortzi neurri berekoak bainan zortzietatik bida etzanta eta berte seiak zutik, bi aizkolariek batean asita lan guzia zeñek lasterrago egin. Lehenbizi berdintsu ibilli ziren bainan lan erditsuan Latasa'k abantaila puska hartu zuen ta zortzi onborrak erditu zituen, Altzubi'ek bere zazpi-garrena oraindik akitzekoa zaukelarik. Latasa sunbildarra azkar dago, zutitako onborretan eginikako lana guzien gañekoa izan zen, horrek ofizioa ongi daki badu adrendue, eta indarra ta kuraia etzaio falta. Arizkundarrak ere naikoa egin zuen be-

re lan guzia akitzea. Mutillak bada-ki lanean eta obekiago prestatzen balitzake, bigarren mallako edozein aizkolaritari lanak emango litiozke.

Bertsolariak Lasarte ta Lazkao-Txiki ziren. Beti bezala bertsolarien kantaldia gustagarria izan zen.

Bigarren egunean lasterketa bat egin zuten, oñez nor-lehenka eta sei kilometroko bidean. Lasterketa hon-tan sei mutiko baztandar aritu ziren eta Soule arizkundarrak irabazi, bigarren Inbuluzketa elizondarra sartu zelarik.

Aurten San Juan eguna besta iru-garrena zen. Goizean Meza Nausi ederra eta meza erranta ondoan eta oituari yarraikiz, Mutil-dantza. Aurten bizikleta lasterketa ere izan du-te eta hortan ari izanak dire bizikletari gazteak bakarrik (Juvenil deitutakoak). Hoi-en artean Arizkun-dar Eujenio Maritorea zagon eta amabortz txirindularien artean iru-garren sartu zen. Lasterketa Lizarra'ko batek irabazi zuen. Aratsaldean «Elkartasuna» deitutako pilota lekuan, bi partida yokatu zituzten. Len-bizikoa paletazkoa, Txatxin ta Habans elizondarrak, Arizkundar Arria-da anaien kontra Partida polita eta atakatua adoste aunitz egin zituzte-larik. Azkenean elizondarrak garai 40-37.

Bigarren partida esku-huska, Etxandi ta Agerre erratuarrak alde batetik eta Txoperena ta Elizalde bertzetik. Eten partida arrigarria gertatu eta gudukaldi huntan erratuarrak galtzale.

Eguraldi txarra aurtengo Sanjuanetan, lenbiziko ta bigarrenen eurie yausti ahala, beharrik dantza ta yotetako legor ederra badaukatela. «Orquesta Alegria» koek eta Maurizio txistulariak alaitu dituzte bestak eta gazte yendea ederki yostatu da.

Gero Sanpedrotan Erratzu, Almandoz ta Doneztebe'ko herriek ere beren bestak ospatu dituzte eta urtero bezala bazituzten pilota partidak naiko soñu ta berte yosteta zenbait ere.

Merexi du aipatzea Sanpedro bigarrenean Erratzu'n eginikako bertsolari besta, hortan Mattin ta Xal-bador ari izan diralarik. Bi bertsolari maitagarri hoken kantaldia izag-ri polita izandu zen, eta yendeak zer irri-ajatak egin ote zituen kobla-rien ateraldiek. Besta guziz ederra.

Almandoztarrek ere besta ederra eginak dituzte, eta aipatu deza-gun irugarren egunean San Blas'en eginikako bazkari ederra herriko gazte ta ezkonduak han bildurik anaien arteko otordua egin zutelarik.

Sanjuanak eta Sanpedroak igaro dira eta orai Santioak. M. IZETA



### NAFARROAKO AURREN JOSTETAK (IV)

Egunkari ontan nik argitara erde-raz eman jostetak, gure lankide Oñatibiak euskaraz eman ditu, esan dugun bezala. Atseginakin argitaratzen ditugu, euskal Eskolategiko Irakasleek balia ditzaketelakoan.

### PRIMARIA JOKOA

Leen ikusi dugun eraetako baten bidez (XIRISTI - MIRISTI - erre-na OLIQZOPA PLAT - KIKIRRI SAL-DA - URRUPERO EDANERO KLIK) bazterturi gelditu dan mutiko bat —BETE— gelditzen da; au da, PA-RA, makurturik joko-biraren erdian, eta gaiñerakoan aren gaiñetik jauzi-ka doaz, eskuak bakarrik aren sor-baldan jarriaz, eta 1-2-3 eta 4 esa-naz, bakoitza bere aldan. Ikuturik

txikiera egiten duenak galtzen du, eta leengo PARA-ren ordez jartzen da.

Erderazko a la una anda la mula, a las dos tiró la coz, etc., bezelako jokoak da -4- ra eltzean, jauzia egin duenak ASENTA edo PASA gal-detzen dio beekoari, eta erantzuna nola izan dan ikusirik, onen gaiñean exeritzen da ura, edo ikutu gabeta-rik pasatzen da; norbaitek nola naiz ere, uts egiten badu, BETE-ren ordez jarri bear du.

-5- garren jauzian, TXOPETARA; -6- garrenean, KORDILLERA; -7- garren jauzian, MARTILLARA; -8- garrenean, PAN y BIZCOCHO; -9- garrenean, ENMIENDA; -10- garrenean, KOLER; -11- garrenean BIRIBILIKON-DO; -12- garrenean, MONTANA; -13- garrenean, ETXERA GAN ta SAGAR USTELEZ ASE; -14- an azkenik, BAT-BI-HI-RU-LAU, aquí pongo la boina, esaten dute; eta-jokazaille danak, banaka jauzi egiñez, bere txapela (Boneta) jartzen dute, leenagokoa-ren gaiñean.

Gero, azkenekoak jauzi egiten du berriro bere txapela (Boneta) jaso-az, besteetako bat ere lurrera bota gabe, eta orrela jauzi egiten dute danak, azkenekotik asi eta aurrene-koraño; norbaitek boneta bat lurre-ra botatzen badu edo berea ongi jartzen ezpadu, BETE-ren tokian ja-ri-riko da, eta jokoak berrikotik asi.

## Huarte Arakil

Bi egun aurretik asi ziren Sanjuan festak aurten Huarten. «ARALAR MENDI», herriko Gaztediak, elkar arteko etxea ideki du. Garagarriaren 22-an zuten beren festa aundia. Herri bateko festak izan dezaketen asiera politena. «Berritu edo hil», esan zuten lengo zaharrak; eta Huarteko Gaztedia Berritu nahian dabil.



Gure lenbiziko poza begitatik sartu da: dantzari talde eder bat eta txistulariak ikusi ditugu herrian sartzean. Eta bertako neska-mutillak ziren dantzariak: AGIRI taldea.

—Ez ginakien dantzariak bat zinu-zenenik?

—Ixilian ari izan gera lanean. Ixilian ez du gordeka esa nahi, ots aundirik gabe baizik. Gauaz bildu eta auskolo noiz artio aritzen ziren ikasten. Ixilkako lana. Ez dute hau lenbiziko aldia dantzaten dirana: herriko seme baten meza berrian atera genituen lehenik. Egundia izan zen eta oso ederki ari izan ziren dantzan. Orai ba dirudi aspaldikoak ba-lira bezala...

Pilota lekuan beren dantza aldiak ikusten ari ginen guziak gus-tora ginauden. Jantzi gorri beltzez marratuak ikusita nun esaten duen herriko Artzaiak:

—Ez dira ongi josiak? Monjetan josi dituzte... Lan ona egin diete.

Bai naski. Ez luke iñork esango. Erdaldunak dira Huarteko sero-rak; eta dantzariak ez dakite euskeraz. Gurasoak berriz eskualdun garbiak. Tafallan euskerazko eskolak idekitzekoak dira heldu den urtean; hobeki esan, aurtengo udazkenean. Ez ote laike zerbait egin Huarteko herrian? Jantzi horren anima izango litzake. Gogoa behar...

Egin duten etxe barnean ere eskual kutsuko gauzak: harri biziz-ko pareta zaharrak, zurak agerian, ariko adar biurri eta aunitz burua txamini baztarrean. Zoragarria. Izen aundiko ostatu eta jatetxeak nahi lukete beste orrenbeste berentzat.

—Dena geure eskuz egina —esan digu Joxe Marik—; gaur goiz aldera hortxe ari ginen oraindik bazterrak txukuntzen. Lan asko egin da, baño etzaigu damutu hasia.

—Eta geroko asmo berririk?

—Hor dira denak. (Hitz auek esatean su bazter aldera itzuli gera. Han zeuden asmo zabal guzien paper aundiak). Etxea herria-rena da, esan digu gure adiskideak. Meharrak da, baño oso luze. Erdia eman digute. Beraz, hemen ikusten den beste horrenbeste toki ba dugu gauean. Urtearen buruan itzaldiren batzuk emateko biltokia egin nahi ginuke han. Liburutegia eta teleclub egiteko gogoa ere ba ginuke. Berdin beste edozein ikasbide. Jakintza mailla jotzen dugu gure herritan beharrezkoena...

Hontan ari ginela, gu konturatu gabe barnea jendez bete da. Pilota partida ikustetik etorriko ziran. Batzuk eta bestek ezin zuten aski esan hango edertasuna.

—Gezurra dirudi lengoa dela..., esan zuen norbaitek. Gaztediari utzi behar dakio!! Bai, —erantzun zion beste batek—; hauen es- kutan zerbait izango litzake Huarteko herria.



Nahi gabe gauza asko etorri zitzaizkidan burura: garai batez, inguru herritako jende guziak Huartera zuela joera; Huartetik joa-ten ginela San Migel tontorrera; jai atsaldetan soimurik etzela fal-tatzen plazan. Gañera San Migel berena zuten esateko moduan; beren lurtean zagon beintzat. Bideberria, San Migelko bideberria, egin gabe gelditu zen egin zaiken garaian. Mendiak ez dute balio lehen bezala. Giroa ere ez da berdina: euskera maitea entzuten zen sukaldetan eta plazan...

Azken aldi hon-tan, galduz zijoan bere itzala. Inguru herritako jendeak hartu ditu larrabide berriak eta Huarte hilik gelditzen da igandetan. Ez dute ainbeste host ateratzen oihanen milloiak. Guarden etxetik dihoaz denak Sanmigelera eta kartak ere Lekunberritik joaten zaizkie, jatekoak eta porlana bezala. Nere ustez halako zerbait izango zuen gogoan, Gaztediaren eskutan Huarte-ko herria zerbait izango zela esan zuenak.



Ni festaren ikustera joana nintzan eta ango giroa sumat- zera. San Juan aurreko igan- dea; festa bezpera usaia. Gel- dirik egondako ur epelak na- hasi ditue iturri bizi bat, gaz- teak. Gazten etxeko arri za- harren agertzea eta zura bel- tzak, hil ez diren gure gauzak. Eskual dantzak beste gauza askoren asiera? Ilargia arra- patzea beste izar batzutarako bidearen asiera bezala... Zer- baiten bila dabil Huarteko Gaztedia. Aurrera mutillak!

J. M. SATRUSTEGUI



Fiestas de SAN JUAN 1969

## EZ! HELBURU GABEKO EKINTZARI

Helburu gabeko ekintzari ari zai-gu Hernandorena jauna. Gainera, euskeraren heriotzari buruz, lehen-dik esanak ziraneri, mamiz ezer gehitu gabe. Soroetako mamu-mozoloen espantak; besterik ez. Euskerak heriotzaren harriskua duela? Besteok ez bagenek bezala ari zai-gu. Artikuluok hobeto ziran «Ya», «Arriba» edo «Fuerza Nueva» bezalako aldizkarietarako, bigarren le-rraoan «Destinado al Fomento del Vascuence» izenburu duenarentzat baino.

Euskeraren zoritxarrari buruz eta euskaldunon ahuleziari buruz, esan behar zirenak aspaldi esanak daude. Unamuno ahalegindu zen bere biziko onduen, bera hilobian sartu ondorean oraindik bizirik iraungo zuen euskeraren hiletak kantatzen; baina euskera oraindik hemen dugu (askoren zoritxarrerako) eta Unamuno joan zen (G. B.).

Hala ere, euskeraren prolemarik larrienak Unamunok aipatuak utzi zituen, geroztik beste inork egin duen baino sakonago eta obeto. Baina, bere aburuak, zorrotz eta taxuz aztertuak ditu Martin Ugaldek Unamuno y el vascuence (1966) liburuan. Inork ezer esatekorik badu gai hon-taz, beharrezkoa zaio, gaiaren arira zentzuz lotuko bada, lan hau aztertu eta bere kritika sakona egin. Taxuzko kritika, nahasmendurik gabe. Gainerakoan, hutsean aritzea beste-rik ez da.

Euskerak etsai asko ditu; beraz, balioa du, zeren etsairik ezteuenak oso gutxi balio bait du.

Momentuak larriak badira ere, ezin gera ibili tiki-mikizko konten-plazioetan. Alde batetik edo beste-tik ondo oratu, Zirt edo zart. Ezin gera ibili bada-ebadako zalantzatan. Denbora galtzea eta harriskua han-ditzea da.

Izua alde batera utzi eta osagarriak behar ditugu. Hau da: osagarriko teoriak eta ekintza, bizitzaren helburuetarantz.

Ohar bat gaineratu nahi nuke. Hernandorena jaunak PRINCIPE DE VIANA-ren 39-gn. ziona, Euskaltzaindiak bere zabalkundea erderaz egiten duela; irakurleak ikus beza no-rainoko egia den: ilero egiten da euskeraz «Zeruko Argia»-n, maiz PRINCIPE DE VIANA-n, euskeraz, ile-ro bere biltzar agiriak zabaltzen ditu euskaltzain eta laguntzaileen artean euskera hutsean. Erderaz «La Voz de España»-n egindako bi artiku-luak, Euskaltzaindiari buruz, nik eginak ziren, ez Euskaltzaindiak. Nik eginak eta kanpora begira; gainera, egunkari horren zuzendariaren eska-riz. Beraz, inor bada pekatari, ni naiz, eta ez Euskaltzaindia.

Baina zer du txarrik kanpokoeri ere zerbait adierazteak? Hernando-rena jaunak hainbeste goratzen di-tuen katalanak ere ez ote dute hor-renbeste egiten? Nundik dakizki beren berriak gaztelararen bidez izan ezik? Ez ote daki, haiek, kan-pora begirako propaganda oso ongi antolatua dutela, bai gaztelaraz eta bai frantsezaz?

Gure lanen berri eta batez ere gure literaturarena maizago emango bagenu, behar bada Cuadernos pa-ra el Diálogo-k bere 30 años de Li-teratura narrativa y poesía españo-la, 1939-1969, dalako zenbaki bere-zian ere aipamenaren jabe izango ginen, katalán eta gailegoekin ba-tean, gure hizkuntzaren itzal onera-ko. Aspaldiko separadoreak egin duten joko baldin ez bada, kanpo-ra begirako zabalkunderik ezana izango da, noski.

Beraz, nor uka zenbait gauza kanpora begira erderaz egiteak ere osagarriko laguntza eman al dua-la? Espantu izugarriak baino gehia-go noski.

Bide guzietatik guzuzen helbu-ruetara. Utikan! inora ez garamaz-kien bideak. Ez jhelburu gabeko ekintzari!

JUAN SAN MARTIN



## EUSKAL DANTZAK

Goian eguzki gorria, azken gabe-go zeru urdiñean galduta antz. Gar-bi mendi tontorrak. Garbi ta ixil. Be-ro errian. Bero sukalde ta kaleetan. Jaiak. Erriko jaiak. Bostak erlojuan.

Poliki poliki, jendea elkarganaten ari da erriko zelaitxo batean. Ezda-kit plaza ala etxeen arteko jostale-ku bat dan. Ezdakitz zer dan. Jendea elkarganaten ari da. Igo dira len-dabiziko saskain edo «altsaferoak», haien keak zeruen urdiñ garbia zi-kinduaz. Jaiak errian.

Txapela buruan, dantzariak gerto daude. Txuriz jantzita, bi girgil edo zinta dauzkate guruztuak aurre ta atzeko aldiak. Oñetakoan lokarri gor-riak zango gora saretzen dira.

Dantzariak gerto daude; erri guz-tia inguruan. Susmur il bat jendeen artean.

Asi dira txistulariak. Danak ixillik. Entzun leike txistuen euskal soñu liraña. Dantzariak, heben lerroak au-tsirik, alkarren artean nahasten di-ra. Auts artean, haiek, bizkor. Ibil-kuntza bakoitzak, berekin darama

guk ulertu ezin degun esaera arri-garri bat. Ibilkuntza bakoitza, urtetik urterako oitura zarra da.

Txistuak jarraitzen du: «Bizkor, azkar, geiago...», dio; ulertu ezin leiken txistuen izkera! Harat eta ho-nat, dantzariak. Euskal biotz bero bat haien indar-emalle ta maixu.

Azkenez, soñua galtzen da urruti. Dantza bukatu da. Txalo beroak; ta gizonak ostaruetara; emakumeak etxera edo...; aurrak iostaketara. Orañi ia, beraz, bakarrik geratzen da, izango danaz, jaiotza gabeko oi-tura baten gogarpena. Ala dira gure euskal dantzak!!

Askotan entzun leiken deadarra: —«Zertarako ainbeste oitura zar?; ainbeste dantza?; ainbeste...? Urte-tik urtera, erriko jaialdietan, dantza berdiñak, soñu berdiñakin. Ezin al leike aldatu ta beste zerbait berri jarri? Dantza ta janzkera berri batzuek, ez ote gustagarriago? Erriko jaialdia, urtean beñi ospatzeko eu-kirik, biurtu ta berritu bear ginduz-ke!!».

Benetan, azaletik begiratuz, esae-ra honek arrazoi osoa berekin dar-ma. Baño, konturatzeko zalla izan arren, egia da oitura zar hoiak, neu-rririk gabeko aberastasunez beterik daudela. Badago haietan «folklore» puxkada bat baño zerbait geiago. Ba, ez. Ez ditugu aldatu behar. Eu-ki, baizik, zintzo. Zergaitik?

Begira: erri batek, raza batek be-rekin darama aztura ta izakera be-rexia, berea ta bakarrik berea. Ta erri hori, naiz itxuraz aldatu, sakon-tasunean beti izan zana izango da, ta jarraituko du izaten. Gizonen antz, benetan; gu, geurok, naiz aundi-tu, ezkondu ta zaartu, itxuraz bes-te batzuek izan arren, biotz barruan beti berdiñak edo oso antzekoak ja-rraitzen degu izaten, sentimentu ta zuzperraldi antzekoak.

Ikusita dago, erri baten izkera, erri horren izakera ta erriar hoi-en animaren egiazko agerpena dala. Honela, euskera, izkera gogor ta la-tza izanik, euskaldunok halaxe, ez gera leun ta lirañak noski, maker ta latzak baizik, gure mendi ta itsas-bazterren antzekoak.

Lerro beran, erri baten oiturak, erri horren ikusmira ta siñeskaik aitortzen dizkigu. Benetan, Andalu-zia-ko jendeak gurekin berdiñak ote? Ez; haiek paketsu ta atsegiñ-zaleak, euskaldunok geldikor, sutsu ta odol berokoak; gereak gerto zaitzalleak. Era berean, Andalu-zia-ko dantza, janzkera ta oiturak idorrek dira, an-kapean daukaten lurra bezelakoa. Euskal «folklore» berriz bizkor, zar-pail ta gogorrago.

Benetan, orra or bi errien izake-ra, oitura haien bidez argitaratua. Esan genezake orain, zergaitik zai-tu ta loraztu bear ditugun? Egiz, ta amar aldiz egiz, arrazoi beta dau-kate esaten dutenak, izkera ta oi-tureen bidez ezagutuko ditugula era-biltzen dituzten haiek. Egi abera-tsa!!

ANTHON



DR. HERNANDORENA

¡¡ ILL.... edo BIZI !!

## EUSKALDUNAK NAHI BADUTE.... BIZIKO DA EUSKERA

¡¡HILTZEKO LANJERRAN...!!

Azkenik, eta geiago luzetu gabe, ona emen Euskaltzaindiko bazkide eta Euskaltzaleen Biltzarreko Lendakari dan Labeguerie jaunak esandako itzak, Larzabal, antzoki-egillea Euskaltzaindian sartu egunean: «...Ez da nausi-tzale, garhaitzale bat (euskerak). Da ahul, erri, hiltzeko lanjerrean».

¡¡Au da euskeraren egokera tristea!! Bizi da, bai, baño iltzeko arrix-kurik aundienarekin.

GURE ERRESPONSABILIDADEA

Ikus dezagun lehenik, euskeraren egokera triste ortan euskaldunak, geok dauzkagun erruak.

Ondo baño obeto dakigu, eta bear da aitortu gauzak ongi neurtzeko, ondo dakigu azken gerlak euskerari egin dion kalte ikaragarria.

Baño ori pasa zan... atzokua da.

«Lo importante es el futuro», esan zuan euskaldun gazte jakintsu, eta Trujillok sakrifikatu zuan Galindez idazleak.

Gauza bera esan zuan Peguy, franzes idazle ospetsuak: «...Entzun de-gun ordua, entzuna da. Igarotzen ari dan eguna... igaro da. Bakarrik biar eta etzi... gelditzen dira».

Euskeraren arazo ontan ere berdin da: gaurkoa eta biarkoa bakarrik interesatzen zaizkigu: Euskera nola bizi dan eta... nola biziko dan biar.

Baño gure gaurko eta biarko jokabidea argitaratzeko, ez degu kalte-garri izango, euskerak daraman beerakada ikaragarri ontan euskaldunak daukagun erresponsabilidadea jakitea.

GURE ERRUZ...

Ez dago zalantzarik: euskera gaur zoritxar ontan ikusten badegu, gu-re erruz, eta gure erruz bakarrik dala.

Ez du balio —aundienak izanikan ere—, ez du balio iforreri aitzakia botatzia. Ez du balio euskeraren galtzoria, guria ez den bizkar baten gain ezartzea.

Gurea da errua, eta garbi aitortu bear degu, gero erremedia gu baitan arki dezagun.

GURE ERRUAREN LEKUKO ZONBEIT

Ona emen, gure erru ori azaltzen duten bizpauru, itzal audiko, lekuko.

D. DOMINGO AGUIRRE.

Nork ez du ezagutzen Kresala eta Garoaren egillea...?

Ona jaun onek esaten diguna: «...Ezagutu daigun, danok daukaguzala erruak, eta euskera, ilten bada, geuk il dogula».

SAUVER NARBAITZ

«Ikas» alkartasunaren buruzagi eta Lapurdi aldiak euskeraren alde go-gor jotzen dun gizona degu. Ona emen bere iritzia eskuarari buruz: «...euskaldunen erru osoa izango da millaka ta millaka urtetan datorkigun zibilizaziua galtzen bada».

MADRIDEKO «EL ALCAZAR» EGUNKARIAK

«Un idioma no desaparece por real decreto, ni se suprime. Un idio-ma nace y vive con el pueblo».

Beste itzetan: erriak ematen dion bizitza izango du, euskerak. Ori esan nai du itz oiekin.

DE RIJK, NEDERLANEKO IKASLE BAT

Nederlandetik euskera ikastera Euskalerrira etorritako ikasle bat da jaun ori. Ona Mari Carmen Garmendiari eman zion iritzia: «...Nik dakidana, ordea, auxe bakarrik da: Euskera galtzekotan, ez esan kanpotarrak zapaldu egin dutela, euskaldun berberen erru osoaz gertatua izango baita. Badakizu zergatik...?»

Euskal gurasoak nai izan ezkeru, ez da munduan indarririk sortu, aien seme-alabak euskera aazten edo galerazi aalko liekenik».

De Rijk jaunaren egi onekin, Euskalerriko baztar guzietara oiukatu bear genduken egi mardul onekin bukatzen degu gaurko lantxua.

NOLAKO GAITZA... ALAKO ERREMEDUIA

Euskera arrunt eri dela eta... gure erruz dela ikusi degu.

Eta sendagille batek ongi daki, gaitz bateri erremedio zuzenik ezin lei-kela ipifi, gaitzaren sustraia ongi ezagutu gabe.

Ortan saiatuko gera.